


T X I L L I D A :

IRUDIGILLEETAN NAGUSI



Nere irakurlerik gehienek ez du kete artikulu hori irakurri. Eta, siñistuta egon, tamalgarria da: on izango zitzakean Abenduaren 5-eko «Le Monde»ren «Le Courrier des Arts» dalakoa denok irakurri izana. Artikuluaren izenpurua hauzean: «Cette obscure clarté: Chillida».

Bijoa hau aurretik: nik ez dakit ezer irudigintzaz. Jator aitortuko dizuet hasi aurretik. Orain dala urte mordo bat Paris'ko Galeries Maeght' enean ikusi nituen, hain zuzen, Txillida'ren imajiña bitxiak. Burnia haiek ez ninduten mendrenik ere ikutu: egia aitortzen dizuet. «Hau da beraz Txillida?» pentsatu nuen nerekiko. Eta txunditu egin nintzan; eta ixildu ere bai. Ez natzaizue, hortaz, nere buruz mintzatu: ezer gutxitarako izango litzake...

P. M. Grand hori, ordea, «Le Monde»ren kritikaria alegia, jantzia da noski arlo hortan. Eta, euskal irakurleek errazkiago adi dituzaten, huna hemen, euskeraz ipiñirik, azaldutako iritzi batzuk: «Osotasunerañño eramana, zuritaraiño goritua, bihurerrarik gabeko sendotasunean joanarazia, irudigintza-sorta bat bukatu du alde batetik... (Txillida'k burnia uzteko asmoa bida du, irudigaitzat aurrerakoan hartzuri edo alabastroa hartuz)... «Gaurko irudigintzan, berea da produziorik garbi-ena... Zalantzarik gabeko garaitza-pena... Aidean barrena osatutako bidaia aparta... eta abar. Zertara-

ko besterik? Ba genekien hau; baiña mundu zabaleko prentsak berriz gogorazten digu: Txillida gaurko irudigileetan nagusia da, guztiz lehendabiziko maillako artista bat, Picaso'ren kidea imajiña-saillean.

Baiña hau guretzako pozgarri izanagatik ere, ez da dana. Abendu hortantxe egindako kritikan ageri denez, aspaldidanik bezela, Txillida'ren imajiñek euskal izena daramate: «Iru Burni» (1966), «Bakuntza» (1968), eta abar. Txillida, hitz batez, geure Txillida da. Bere burnia harri-garriak euskeraz bataiatzen dituelarik, ekarria unibertsala du; eta itxura euskalduna.

Hortara jotatuz, geure bidea erakusten digu donostiar famatuak. Zeren-eta, artista edo idazle geran aldetik, gure ekarriak gizatarra izan behar baitu, gaurko arazoei erantzun bat; baiña ekarri horiek, unibertsalak izanagatik eta diralako, euskaldunak izan behar baitute formaz. Kultura eta hizkuntza baten seme gera; ala ez gera ezer. Esperantoa ez da inñun itsatsi. Lurrak ematen du guna. Kawabata'k Japon'en bidez ikusi du mundua, Asturias'ek Guatemala'ko inditarren bidez, Grieg fiordo lilluragarrietan elikatu zan musikagintzan; eta Txillida'k, irudigintzan abiatu dalarik, euskeraz adierazten du bere lana.

Berari txalo jotzea, hortara, bidezkoa iruditzen zaigu. Areago: gure artistarik haundienak gure txalo

apal hau baiño askoz gehiago merezi du; eta kontutan hartuko dugula siñistu nahiko genuke. Aspaldi huntan gure herriak eman dituen artistak eta idazleak sorterriaz lotsatu egiten ziran: Zuloaga, Unamuno, Baroja, eta beste anitz. Txillida, aldiz, Euskal Herria'z lotsatu beharrean, nun-nahi euskalduntzat har dezaten nahi du. Ausardia handia eta eskergarria!

Bi arriskutatik iges egin du Txillida'k, beraz. Alde batetik, euskaldun izan nahiz, ez da jatorkerian edo folklorekerian erori: txapelik gabe, Txillida'ren burniak euskaldunak dira. Baiña, bestetik ere, sasihaunditasunak ez du itsutu eta bera herritik erauzi: Txillida ez da sus-trairik gabeko artista bihurtu.

Zorionak, beraz, behin eta berriz!

LARRESORO



Conservatorio'ko Orkestra

Nik uste, Donostia'ko Orkestra'ri ez diogula bear aña ajolarik ematen. Ez diogula aintzakotzat artzen ematen dizkigun konzertio ederrak. Gaur Orkestra Sinfoniko bat izatea gauza aundia da. Erri aundi edo uri nagusi batek izan dezakean edergarrik baliotsuena. Unibersidade ala Katedral ta Obispotegia izatea aña-koa.

Ez da gauza erreza beren joga-luak ondo jotzen dakiten 50-60 musikaririk bilzea; oso zailla, asko kostatzen dalako ikastea, eta gazteok ez dute urteetan eta urteetan ortan leia nahi.

Hori naiko ez dala Musika-zuzendari on eta trebe bat beardute: Musika arte guzian zero jantzia; Musika sakonetik ikasi eta asko entzun duana. Benetako artista bat. Onelako gizon bat arkitzean Orkestra bururatzten da.

Au guzia, zorionez Donostia'n badegu. Eta Donostia'n dagola Gipuzkoa osorako dala esan ditek, Onelakoak dira Conservatorio'ko Orkestra ta Bello-Portu maisu-zuzendaria, ospetsua.

Egiten ari diran lana, ainbeste konzertio eder emanez, egitan da txalagarri. Konzertio aldi bakoitzean zenbat herri jotzen dute, naiz klasiko ta naiz orango Musika. Askotan jotsaille ta abeslari famatuenai lagundurik. Orkestak ondo gertutzeko ez du bear aña saio egiteko betarik. Alaz guziaz, egin gutxitan Bello-Portu'k lan egin arazten die konzertiora mailla egokian jotzera joan ditezten. Jendearen gogoko izan ditezten. Ori da bere asmoa ta elburu orretara iritzi dala gero ta geiago konzertiotara dijon jendeak aitortzen du.

Jakina, beti izan oi dira bazterretan zenbat kritiko bekaizti ta zipotz utsegite ta akatsak ateratzen dituztenak.

Kritika leial egitea gauza bearrezkoa da. Ez ordea zirtzilkeri asmo tivarrez...

Auen artekoak ditugu «La Voz de España ta El Diario Vasco»ren kritikari buño geiago masiatzalle diranak...

Beroiek jakingo zergatik. Bello-Portu maisu bikaina begitan artua dute ta konzertio-kroniketan uste oker eta baepakoak agertzen dituzte. Beren iritziak leial eta zuzen agertzea bidezkoa da.

Bainan, Musika gauza sotil ta subjetiboa da. Ez da ortaz baliatu bear inorenaganako etsaigo ta gaitzerikoa

asetzeko... Ez da zillegi iztar-begi Bello-Portu'ren kaltez izatea. Onak txalo ta goresmena merezi ditu egiten ari dan lanagatik. Inor gutxi egin lezake geiago bere esku dituan musikariez ugarietia; eta beste-ere denboraz eta diruz urri dalarik.

gorago aitutatuko kritikariak ez datoz bat geienetan.

Batak aguroegi jo zuala esaten duanena, besteak puska bera. geldiegi eraman zula dio. Eta alatsu beste iritzi asko. Nik orrelako kritikoak maisutuan asi aurretik eskolaria bialdiko nituke zer dakiten ikustera. Donostia'ko Orkestra zupaldu egin nai al dute beste nun-

batekoa indartzeko... Donostiar eta gipuzkoarrok ez degu hori utzi bear. Aurrera beti Bello-Portu'! gure laguntza izango dezu-ta.

Zorionez Donostia'n musiku-kritiko jator bat «Unidad»en idazten duana garbi jokatuz eta Bello-Portu'ren lana leial ta zuzen juzgaturik zor zaiona emanez. Conservatorio'ko Orkestra azpi-lan guzien gañetik egon bear du. Orkestra Sinfoniko bat gauza aundia baita da Erri batek izan dezakean edergarrik baliotsuena.

Iraun dezala arte askotan gure kulturaren onerako.

IBALAN

